

Neguro 55.000 kurrilo (goian)
inguru etortzen dira
Iberiar Penintsulara.
Antzarak (eskuinean) urtearen
arabera, 80.000 edo 150.000
etor daitezke.

Lerro-lerroan hegoalderantz

Migel Mari Elozegi*

“Bihar elurra”. Hauxe izan zen artzaiak antzara-saldo handi hari begira esan zigun lehenengo gauza. Biharamunean elur izpirik bota ez bazuen ere, eguraldi hotza eta euritsua egin zuen. Gehienontzat oharkabean pasatzen diren arren, nekazaritza-giroko jendearentzat antzara eta kurriloen joan-etorriek garrantzi handia izan dezakete. Izan ere, urtero zeruan

Egia esan, aspaldidanik nuen hegazti hauei buruz idazteko gogoia, baina ez nekien Euskal Herrikoetat har ote zitezkeen eta, beraz, sail honetan sar ote nitzaiken ala ez. Normalean, bertan kumatzen diren animaliak hartzen ditugu bertakotzat eta inork ez luke zalantzan jarriko, adibidez, sorbeltzak, sai-zuriak, edota miru beltzak bertakoak direnik. Hauetariko batzuk, ordea, Afrikatik etorri, kumatu eta txitoak habitik atera bezain laister hegoaldera abiatzen dira berriro eta, beraz, urtearen herena besterik ez dute bertan ematen. Gainerakoa Afrikan ematen duten arren, hegazti horiek bertakotzat hartzen ditugu; Norwegian jaio eta azarotik martxora arte hemen egondako antzara, berriz, negutiarra dela esaten dugu. Guk, ordea, hegazti hauek bere bizitzaren tarte handia lurralde honetan eman dezaketenez eta, gainera, antzara eta kurriloak euskaldunontzat aski anima-

lia ezagunak direnez, gure ohizko atalean sartu ditugu.

Antzara (*Anser anser*) zein kurrilo arruntak (*Grus grus*) urri bukaerako eta azaroko lehen egunetako paseko hegazti tipikoak ditugu eta bientzat Iberiar Penintsula negutze-eskualde garrantzitsua da. Europako iparral-

Kurriloak eta antzarak, biak, lepoluzeak dira. Kurriloek, gainera, hanka luzeak dituzte eta, beraz, bereizten errazak dira.

Antzar gehienek Guadalquivirreko paduretara eta aintziretan igarotzen dute negua.

deko zabalunetan kumatu ondoren eta negua iritsi aurretik, hegoalderantz jotzen dute, janaria errazago topatuko duten latitudeetara. Eskandinabia, Sobietar Batasun ohian eta oro har, Europako iparraldetik hegoalderantz abiatzen dira eta 2.000-3.000 km-tik gora egiten dute bidaian neguko lurraldeetaraino. Pirinioa erdialdetik baino, mendebaldeko lepoetatik zeharkatzen dute eta Iberiar Penintsulara heldu ondoren, gustuko lurralde jakinetara abiatzen dira.

Antzarak nagusiki Andaluziara eta zehazki Guadalquivirreko paduretara joaten dira negua igarotzera. Horiez gain, Zamoran dauden Villafafilako aintzirek ere berebiziko garrantzia dute etorritako antzarentzat. Bi gune horietan —eta hegazti gutxiago biltzen diren beste hezegune batzuetan, 80.000-150.000 antzarak (urtearen arabera) ematen dute negua Iberiar Penintsulan. Bakean utziz gero, Euskal Herrian ere geratzen dira eta Pitillas, Urdaibai edota Gasteiz aldeko urtegien inguruan, adibidez, urtero geratzen da saldoren bat. Hezeguneen inguruko belar eta erraboiletaz elikatzen dira antzarak. Kurriloentzat, berriz, hego-mendebaldeko angioak eta Zaragoza eta Teruel inguruko Gallocantako aintzira dira lekurik gustukoena. Guztira, 50.000-55.000 kurrilo (Europako mendebaldeko populazioaren % 70-85) inguru etortzen dira Iberiar Penintsulara eta normalean, Euskal Herrian geldialdi motzak besterik ez dituzte egiten. Neguan zehar, ezkur eta zituak jaten dituzte nagusiki.

Saia gaitezen orain hegazti bikain hauek bereizten. Antzarak zein kurriloak hegazti handiak dira oso.

M.M. Eloseggi

Antzarak 2,5 eta 4 kilo bitarteko pisua dute eta kurriloek 4-7 kilokoa. Esan bezala, bi espezieek “V” itxurako taldeak era ditzakete, baina beste ezaugarri batzuetan erreparatuta bereizteko modukoak dira. Taldea ez sakabanatzeko egiten duten kantuan, adibidez; oso urrutira entzun daiteke eta erraz bereizten da: “kruu-kruu-kruu” kurriloen kantua eta “anj-onj-onj” antzarena. Kantuaz gain, bi hegaztien itxura desberdina da. Biek lepoa luzatuta eramaten dute hegan egitean, baina antzarak hanka motzak dituzte eta kurriloak zangoluzak dira eta beren hankak buztana baino askoz luzeago ageri dira zeruan. Antzarak, azkenik, kurriloek baino hego zorrotzagoak dituzte eta hegal-kolpe azkarragoak emanez egiten dute hegan. Aipatu behar da, bestalde, bi espezie hauen antzera hegazti migratzaile as-

Urtero-urtero milaka antzar eta kurrilo pasatzen zaizkigu gainetik migratzen. Batzuetan V itxurako taldeak edo lerroak osatzen dituzte energia aurrezteko.

kok taldeak elkartzeko joera dutela. Dirudenez, beste abantaila batzuren artean, taldean elkartuta gazteak zaharren atzetik joaten dira bideak, arriskuak, gelditzeko guneak eta abar ikasteko. Eta, bestalde, “V” itxurako eta antzeko formazio aerodinamiko-erik esker, batzuek besteei airea kenduz, hegaztiak energia aurrezteko lortzen dute, txirrindulariek egiten duten bezalaxe.

Espezieen egoera eta etorkizunari dagokienez, kurriloen populazioak egonkor mantentzen direla dirudi, baina antzarenak ez. Dirudenez, azken urteotako lehorteez hilkortasun handia eragin dute antzaren arte-

Babes1



an, bai janari-eskasiagatik eta baita gehiago mugitu behar dutenez ehiztariek ale asko hiltzen dituztelako. Kasu hauetan Iberiar Penintsularaino migratu duten aleak baino arrakasta handiagoz kumatzen dira iparraldeko gelditu direnak, ale gutxiago hiltzen baita. Joera honek bere horretan segituko balu, belaunaldi batzuetan Penintsulara etortzen diren antzaren kopuruak behera egin lezake urte gutxitan. Horixe da, adibidez, antzar hankahoriarekin (*Anser fabalis*) gertatu dena. Duela 50 urte espezie honetako 50.000 antzarak igarotzen zuten negua Iberiar Penintsulan eta gaur egun ale gutxi batzuk besterik ez dira inguratzen. Antza denez, antzar

honek bere ohiturak aldatu egin ditu eta negua kumatze-lurraldetik gero eta bertago ematen du. Zenbait adituren iritzi, joera honek klimaren epeltzearekin zerikusia izan lezake, baina ikerketa gehiago beharko dira hori baieztatzeko. Nolanahi ere, oraindik ere gezi itxurako kurrilo- eta antzara-taldeak pilaka ikus ditzakegu tenore honetan eta zerua zalapartaka zeharkatuz... negua ate joka dugula iragarriko digute.



* Biologoa

